

Oier Arrolaza

DANTZARIA

Profesionalak eta amateurak

K

ultura alorrean, eta zer esanik ez dantzan, profesionalak behar ditugu. Iruditzen zait profesional gutxi izatea dela gure gabezia, arazo eta ezintasun askoren arrazoietako

bat. Gaur eta hemen, dantza jarduera gehienak adibidez, ohiko lanaren ondoren, irakas-kuntzan, enpresan edo kudeaketan zortzi ordu lan egin ondoren egiten dira.

Azken urteotan administrazioa profesionalizazioaren aldeko politikak bultzatzen ari da. Kultura alorreko laguntza eta jardueretan amateurrek parte hartzeko gero eta traba gehiago jartzen ditu. Burokrazia izugarria da, eta diru-laguntzen deialdietan parte hartzea ia ezinezkoa bihurtu da horretarako azpiegitura profesionala ez duenarentzat. Are gehiago, zenbait deialditan zehatz-mehatz adierazten da profesionalak bakarrik aurkeztu daitezkeela. Profesional izatea nola-baiteko berme artistikoa balitz bezala. Eta amateurrek ekoizpen artistiko interesgarriak egiteko izan dezaketen gaitasuna ukatuz.

Krisi aurretik kultura eta sorkuntza alorretako profesionalizazioaren aldeko aldarri hau izugarritzko kontraesana zen, eta zer esanik ez oraingo egoeran. Errealitateak urteak daramatza gure mutur aurrean jartzen herri txiki honetan ez dagoela nahikoa masa



DANI BLANCO



Profesionala izateak ez du
kultur produktuen kalitatea
eta ekarpenaren mamia
bermatzen. Are gehiago,
ezagutzen ditugu artista
profesionalak, artea ogibide
hartu dutenetik ez dutenak
aurreko mailarik eman



kritiko jarduera kultural gehienetan profesionalki aritzeko. Bainaitsu eta entzungor, profesionalizazioa eskatu eta amateurismoa zigortzen jarraitzen dugu. Eta zentzu batean profesional kopuruak gora egin du. Jarduera artistiko gehien inguruan badira profesionalki ari diren teknikariak, kudeatzaileak, idazkariak, ekoizleak, komunikariak, eta abar. Artistak eta sortzaileak ez proportzio berean.

Profesionala izateak ez du kultur produktuen kalitatea eta ekarpenaren mamia bermatzen. Are gehiago, ezagutzen ditugu artista profesionalak, artea ogibide hartu dutenetik ez dutenak aurreko mailarik eman. Amateur zirenean zerbaiteko zutenean ateratzen ziren plazara, ongi mamitu eta landu ondoren, ez baitzuten produktu kulturala ekonomikoki errentabilizatzeko asmorik eta itxaropenik. Bizimodua atera beharrak etengabe ekoiztu eta plaza publikoan egotera eramaten du profesionala, esateko ezer berririk izan ala ez.

Hasieran esan dut eta berriz errepikatuko dut. Kultura alorrean profesionalak behar ditugu. Baina amateurak ere bai. Ez dugu erronka makala bien arteko elkarbizitza eta lankidetzara orekatua lortzen. Baina ez dezagun inor zigortu bata ala bestea izateagatik. ■

TXANDAN

Edu Zelaieta



Word-en azken bertsioak bizitzen ari garen garaion berri

zuzena eman dit, argi eta garbi, ikono bakar eta sinple baten bidez: itsatsi. Izen hori eman diote —euskarazko bertsioan— gehien nabarmentzen den irudiari: programa irekitzean ezkerretik ageri den lehen funtzioa da, eta, gainera, tamainaz franko handiagotu dute beste irudi batzuen ondoan (ebaki, kopiatu...). Nonbait, orain arteko erabiltzaileok maizen baliatutako operazioa identifikatu dute, bertsio berrituan bezeroari “erraztasun guztiak” eskain dakizkion.

Itsatsi

Iragan garai batean —o tempora, o mores!—, kopiatzea zen alferrari aitortzen zitzaion lan bakarra;

eta, lantegi horretan, denak ez bide ziren berdin trebeak: ezkutuan eta ongi kopiatzea landu beharreko gaitasuna zen. Atzoko alferrok zertaz ari naizen ondotoxoa dakizue. Egun, ordea, alferreko lanetan nekarazi nahi ez duenak ez du kopiatzea xede, itsastea baizik. Itsastea baizik ez, zehazki.

Eta horra hor komeriak, musikan, artean edota lagunekin solasean: kopiaren kopia itsatsiaren itsatsiaz, sarritan zer itsatsi ez dugula izaten, aurretik beste norbaitek itsatsia ez bada. ■